

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“N-240 errepidean Ubideko udalerrira heltzeko hegoaldeko gurutzagunea berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko maiatzaren 15ean egindako bilkuran, 263/2023 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzeari berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza-proiektuak” Arabako Lurralde Historikoan eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren urtarilaren 31ko 23/2023 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi da “N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzeari berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza-proiektua”, bai eta proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda zehatza eta banakakoa ere, eta hori jendaurrean ipintzea.

Alegazioen izapidea beteta, hartan ez da aurkeztu alegazio idazkirik. Hortaz, onetsi behar da proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, ondoko hauek kon-tuan hartuta egina: Arabako Lurralde Historikoan eragindako finkak, haien titulartasuna Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroak emandako jabari eta karga-ziurtagirien arabera, 12, 20, 21, 22 eta 23 zenbakiko finketako oraingo aprobetxamenduak eta 12, 20 eta 21 zenbakiko finke-tan azkenean eragindako ondasunak.

Halaber, desjabetze espedienteari hasiera emateko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakotzat jo behar dela. Alde horretatik, Errepide Zerbitzuak jakina-razi du Tarragonatik Bilbora Barazarko mendatea igarota doan N-240 errepidea Euskal Autono-mia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren xede den sarearen zati bat dela, Araba Bizkaia-rekin lotzen duela, eta Vitoria-Gasteiz (Gamarra Nagusiko biribilgunea) Bilborekin (El Galloko N-634 errepidearekiko lotunea).

Bizkaiko lurraldearen barruan, Arabarekiko mugan, dago Ubideko udalerria. N-240 errepidea, udalerrira horren parean, saihesbidea da eta, horri esker, paseko ibilgailuek ez dute herrigunea zeharkatzen.

Bi lurralde historikoen arteko mugan dago N-240 errepidetik Ubidera sartzeko hegoaldeko bidegurutzeari, eta haren zati bat Bizkaiko lurraldean dago eta, bestea, Arabako lurraldean. N-240 errepidetik Ubidera sartzeko gaur egungo hegoaldeko bidegurutzeak duen egitura txikia da, eta horrek sARBIDEKO bide segurtasuna baldintzatzen du. Bidegurutzeari birmoldatu eta hobetu beha-rra dago, erdiko erreiei ezkerrean biratzeko (dezeleratu, itxaron eta azeleratu) behar duten luzera eta zabalera egokia emateko, bai eta abiadura aldatzeko erreiei (dezeleratu eta azeleratu) ere, mugimendu zuzenak egiteko, bat etorriz aplikatzeko den indarreko araudiarekin.

Hegoaldeko bidegurutze hori berrantolatu eta hobetzeko jarduna Bizkaiko Foru Aldundiari eta Arabakoari, biei, interesatzen zaie, eta Ubideko Udalak eskatu du. Guztiz beharrezkotzat jotzen da N-240 errepidearen erabiltzaile guztien eta sarbide hori erabiltzen duten Ubideko herritarren bide segurtasuneko baldintzak hobetzeko.

Interesak elkartzen diren jarduera izanik, Bizkaiko Foru Aldundiarenak zein Arabako Foru Aldundiarenak, hain zuzen ere, 2018ko azaroaren 20an "N-240 errepidean Ubide udalerrira sartzeko hego bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren esparrua ezartzeko protokoloa" sinatu zen.

Protokolo horretan, alderdiek oinarriak eta konpromisoak ezarri zituzten, jarduera horri ekiten behar diren obrak definituko dituen proiektu teknikoaren idazteko, zein ondoren obrak finantzatu eta gauzatzeko.

Obren aurrekontua nahiz lurralde historiko bakoitzari finantzatzea dagokion haren zatia ezartzeko, lehenago, haiek definituko dituen proiektu teknikoaren idatzi behar zen.

Azaldutakoa oinarri hartuz, 2021eko martxoaren 25ean, izenpetu zen "Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatu eta hobetzeko eraikuntza proiektua idazteko eta onesteko". Hitzarmen hori Arabako Batzar Nagusiek berretsi zuten martxoaren 17ko 10/2021 Foru Arauaren bidez.

Hitzarmen horren indarrez, segurtasun arazo hauek konpontzeko, aipatutako proiektua idatzi eta onetsi da, zeina behin betiko onetsi baitzen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 31ko 23/2023 Erabakiaren bidez.

Gaineratu du proiektu honetan jasotzen dela N-240 errepidearen oinplanoko eta altxaerako trazadura tarte horretan egokitzea proiektuko abiadura  $V_p = 80$  km/h izan dadin, eta trantsizio falken eta abiadura aldatzeko erreien luzerak mugimendu zuzenarako (dezelerazioa eta azeleazioa), baita ere trantsizio falken, abiadura aldatzeko erreien eta biltegitratzeko eta itxaroteko guneen luzerak ere, ezkerretara biratzeko erdiko erreietarako (dezelerazioko eta itxaroteko erdiko erreia eta itxaroteko eta bizkortzeko erdiko erreia), proiektuko abiadura 80 km/h izan dadin, 3.1-IC arauaren proiektuko abiadura horretarako ezarritako gutxienezko neurrien arabera.

Halaber, bidegurutzearen beraren biraketa-erradioak hobetzen dira.

Zeharkako sekzioari dagokionez, oraingo ezaugarriak hobetzen dira eta honela geratzen dira:

- Galtzada 7,00 metro (2 x 3,50 m).
- Abiadura aldatzeko erreiak eta ezkerretara biratzeko erdiko erreiak: 3,50 m.
- Bazterbideak: 2 x 2,00 metro.
- Kanpoko bermak: 1,00 metro.

Obrak egiteko, bai Bizkaiko Foru Aldundiak bai Arabako Foru Aldundiak onetsi dute "Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena, N-240 errepidean Ubideko udalerrirako hegoaldeko bidegurutzea berrantolatzeko eta hobetzeko obrak egiteko" izenpetzea.

Ondorioztatzen du ezen, obra hauek eginda, lortuko dela mota guztietako erabiltzaileen zirkulazio baldintzak hobetzea N-240 errepidearen zati horretan, irisgarritasun eta ikuspen baldintzak modu seguruan hobetzea Ubidera sartzeko hegoaldeko bidegurutzean, eta bide zati horrek gaur egungo itxuraketarekin ematen dituen bide segurtasuneko arazoak konpontzea.

Presakotzat jotzeko izapide honetarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritz Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 178.2 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, Autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7. eta 8. artikuluetan eta Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera.

Eskumen horiek baliatzeko, foru aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, hala xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Arabako Foru Aldundiak N-240 errepidean Ubiderako hegoaldeko bidegurutzea berrantolatzeke eta hobetzeko obrak egiteko izenpetutako lankidetzahitzarmenaren indarrez, administrazio honek bere gain hartzen du proiektuak Arabako Lurralde Historikoan eragindako ondasun eta eskubideen desjabetzea.

Erakunde honen barneko eremuan, desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda onesteko organo eskuduna Foru Gobernu Kontseilua da, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.1.c).7 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak lau garren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. "N-240 errepidean Ubideko udalerrira sartzeko hegoaldeko bidegurutzea berrantolatzeke eta hobetzeko eraikuntza-proiektuak" Arabako Lurralde Historikoan eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea, honen eranskinean jasotzen dena.

Bigarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Hirugarrena. Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubideen okupazioa eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Laugarrena. 22.228,73 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000504 "Desjabetzeak" partidaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain diezaiela. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Seigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzen, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertzeke errekurtoa aurkez dazioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Legutioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 15a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**FERRAN SOLÉ I PALLEJÀ**



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Bide Azpiegituren eta  
Mugikortasunaren Saila  
Departamento de Infraestructuras  
Varias y Movilidad

PROIEKTUA / PROYECTO

N-240 errepidean Ubideko udalerrira heltzeko hegoaldeko gurutzagunea berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua / Proyecto de construcción de reordenación y mejora de la intersección sur de acceso al municipio de Ubide en la carretera N-240

Udal Mugartea / Término Municipal: Legutio

Esp./Expte. 2023/2

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m² BEHIN-BETIKOA	EGUNA	ORDUA
		POLÍGONOA	LURSAILA					
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m² DEFINITIVA	DÍA	HORA
		POLÍGONO	PARCELA					
13	RAFAEL ARECHAGA RODRIGUEZ PASCUAL	3	92	Zelaia / Pradera		82	14/6/23	10:00
15	PABLO GOICOLEA AGUIRRE	3	88	Zelaia / Pradera		858	14/6/23	10:45
20	PABLO GOICOLEA AGUIRRE	3	87	Mendia / Monte	Zuhaitzak / Árboles	415	14/6/23	10:45
22	M. BEGOÑA OTAOLA AJURIA FERNANDO UNZUETA URIA MARIA ELENA OTAOLA GARCIA	3	96	Larrea / Pastizal	Bidea / Camino Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero	115	14/6/23	12:15
12	FELIX IBARGUCHI RECALDE	3	49	Larrea / Pastizal	Zuhaitzak / Árboles	726	14/6/23	13:00
18	FELIX IBARGUCHI RECALDE	3	82	Mendia / Monte		97	14/6/23	13:00
21	FELIX IBARGUCHI RECALDE	3	94	Larrea / Pastizal	Zuhaitzak / Árboles	652	14/6/23	13:00
23	JUANA EGAÑA MINTEGUI	3	95	Larrea / Pastizal	Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero	122	15/6/23	10:00
11	EMILIO DE ARRIAGA LANDETA Mª LOURDES DE ARRIAGA LANDETA AMAYA ARRIAGA LANDETA MIGUEL ARRIAGA LANDETA JUAN IGNACIO LANDETA MONTEGRIFO MARTA LANDETA MONTEGRIFO	3	660	Zelaia / Pradera	Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero	105	15/6/23	10:45
14	BENITA AGUIRRE URANGA	3	91	Zelaia / Pradera	Abeltzaintza itxitura / Cierre ganadero	596	15/6/23	12:15
16	ESTEBAN JUAN ECHEVARRIA LECUE MARIA OLGA BELEN MAESTU URRACA	3	85	Zelaia / Pradera		769	15/6/23	13:00
17	ESTEBAN JUAN ECHEVARRIA LECUE	3	83	Zelaia / Pradera		124	15/6/23	13:00
19	ESTEBAN JUAN ECHEVARRIA LECUE MARIA OLGA BELEN MAESTU URRACA	3	86	Mendia / Monte		343	15/6/23	13:00